

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK

ARATUZTE'KO IRU-URENA

.....ooOOoo.....

JESUS SAKRAMENTUKUAI, EGUN AONE-
TAN, EGITEN YAKOZAN IRAINEN
ORDAINKETA

Oar-arte'tar. J. Antonio yaupariak



ZORNOTZA'N

JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARKOLAN

1930

ATV

39363

ARATUZTEKO IRU-UŘENA



Nihil obstat

Victoriae 9 Octobris 1929

Fr. Josephi Dominicus a Sta. Teresia C. D.

Censor

IMPRIMATUR

Victoriae, die 10 octobris 1929.

PRO-VICARIUS GENERALIS

Jacobus Verástegui



1-83066 / f-88165

AV
39363

JAUNGOIKO - ZALE'REN IDAZTIAK

ARATUZTE'KO IRU-U'RNA

.....OOOOOO.....

JESUS SAKRAMENTUKUAI, EGUN AONE-
TAN, EGITEN YAKOZAN IRAIÑEN
ORDAINKETA

Oar-arte'tar J. Antonio yaupariak



ZORNOTZA'N

JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARKOLAN

1930

© O A Ñ A ©

Zure esku artean daukozun idazti-
ñotxutariko baten egaña, nire Jaupal-
kide batzuk aspaldi aonetan agertzen
eben. Alan be, euskel-idazlak ori yakin
ez-edo, liburutxu ori iñoiz etzan agiri;
ta aonetariko bapez eukitetik kalte ge-
yago letorkela, edefeiye eztan bat eu-
kitetik baño-ta, azkenez, obarik ezean
ta aizkide ofen ezkariz, aúrean daku-
zun au argitaltzen asartu naz «Sarda»
ta «Salvany»renaren arauz. Oregaitik
ba, ez elerti arauz begiratu, asmo zin-
tzoai bakañik jaramon egin. Obarik ez
dagon bitartean erabili, ta obarik ager-
tzen dan ereaz batera, berialaxe, eñuki
barik baztertu.



ARATUZTEKO IRU URENA



JESUS SAKRAMENTUKUAI, EGUN AONETAN, EGITEN YAKOZAN IRAINEN ORDAINKETA

Kurutze santuaren...

¡Jesus Sakramentua! Damu eta gogorik zintzoenagaz, zure oin aurean auzpaztutennaz, gaur nire anaietarik askok egiten deutzuezan iri-baite, iseka ta irain izugañien ordaña emoteko; ta oñez gañera eurentzako argia, erukia ta azkezpena (parkamena) eskatzeko. Andra Maria, nire ta obendari (pekatari) guztien Ama ezin bigun ta samuñagoa zarean ori, lagun zakidaz, nire ezereztasuna gora-bera, otoi aonek Jaunak añera ta abegi onez entzun dagiazan. San Jose zorientzua, une aonetan bakartadezko Bizileku ori inguratuten zagozan milaka aingeruak, batez bere zuek, nire ta ni orain otoi egiten noian, nire geidearen (projimu), arima yabole zarea-

nok, aren eta nire alde jañi zaitez. Azkenez Jesus Sakramentauaren aurrean aurkitzen garean guztiok, alegindu gaizan, une aonetan egingo doguzan eskintzari ta eskari guztiak izan daizan, Goiko Jaunaren aintzan (glorian), gure onian, ta berari egiten yakozen eskergabetasunen ordaiñez. Alan izan dedila.

LENENGO EGUNA

GOGARTEA

Gure Jaun aundi-aundiari, egun aonetan, egiten yakozen, irain ixugañiaretzaz.

I

Ene kristiñau zintzo ta ona! Jesus Sakramentauaren aurrean auzpaztute zakuztaz (ikusten zaitut) askoren txarto egiñen ordaña berari eskintzen. Ondo egin dozu etortea. Ezin zeinkean ez asmau, ez egin gauza obarik. Egiz eta benetan, Jesus iñoiz baño be, lagun bear aundiagoz dago. Bere Biotz biguna, iñoiz baño be uratago egiten da. Kristiñau askoren egun aonetako ibilkera ta egikera naskagañiak ikusi ezkerro, esan leike Satanas bañien-bañi egin dala mun-

duko jabe ta Erege. Gizarte lotsabagea begiratu ezkerro, guzura dirudie Jesusek diabruatzaz esandako itz aonek: «*Ointxe bai, kanpora urten bearke dabela mundu aonetako Jauntxuak*». Ebanjelio ordez, beste legedi bat; ta lengo Jaungoikoaren ordez, beste Jaungoiko bat ipiñi dabela dirudi. Len oben (pekatu) zana, orain eztala, ta len gurtuten zan Jaungoikua, orain eztala gurtu bear. Era dan guztia egin leike bildur gabe, emengo gerokoai erestasun andiz erantzun leikio-ta. Danari deituten yako ezerez ta uzkeria. Dana dago laketuta. Jaungoiko ta Eleiza Ama Deunaren aginduak, egun aonetan, ezeren bildur barik, auzi leikezala dirudi, orek egun aonetarako egiñak ezpalira lez, edo Jaungoikoak eta Eleizeak egun aonetan, euren agintaritzan, bertan bera, ganeko egunetarako itxi ba'lebe lez. Egun aonetan, erlejiño ta bere eskutapenik aundienai, iri-baie ikaragañiak egiten yakez. Egun argiz eta askoren auean izan arien be, lotsa ta itzalen samarik barik, garbitasun edeñaren kaltez, asko jarten dira. Au ikusi ta naigabez beterik egiz deadarka esan leike Kristok: *Orek diraz nik neure odolez erosi, neure eskar zerutañez deitu ta Bateo Deunen bidez ezagundu nebazanak?* Bai, oreixek diraz, baña ez, zuk nai zendukelez, zure antz eta irudia

aldean dabela, ezpabere deabruaren soñeko ta irudiz; onen poz andiz. Oñeiek diraz, baña ez, orain kristiñau, bañien-bañi siñesge baño, eura-kaitik nekaldua ta kurutzian iła ezpaziñalez. ¡O ikusi nai ezeko ontasuna! O, odol oinpetua! ¡O kurutze iguindua! ¡O neurtu ezin añako eskergabetasuna!

II

Iñi - bañe, iseka, irain eta eskergabetasun aonek dirazala-ta, ¡ene kristiñau maitea! Jesus aldi guztietan irainduten ba'da-be, egun aonetan arabe, lotsabakotasun eta amuru ikaragañagoz irainduten dabe. Auxe bai, auxe dala, Aste gurena bera baño be aste mingañoa. Oñegaitik, ezin egokiagoan jarten deusku Eleiza Ama Deunak: *Ontxe bai Jerusalem'era igoten goiazala* diñon Kinkuajesima'ko Ebanjelioa. Bai, Jerusalem'erantz goiaz. Kalbariorantz goiaz. Ontxe. Beste bat aldiz, egiten da Judegu gaiztoak egin ebena. Bai, ontxe Kristo bañien-bañi, txistuz bete, kurutzaldu ta iñi - bañeztuten dabe. Onaxaño eltzen da, Kristo baño Bañabas naiago dabela diñon eñi eskergabe, anker eta biotz-gogoñen oyu ta deadañen oyu mingañoa. Alan be, zu Jesuz, bakañik ementxe; lotsabakeri guzti oñek entzun añen, eñukizko iraupenez, ez

entzun egiten. Zu ementxe, lagun taldetxu bat
tegaz bakarik, geienak, zu bertan bera itxite,
igez egin dautzue-ta. Baña, Jesus bigun eta
samuía, poztu zaiz, besterik ezean, onixekaz
nire eskintzari txiro, ezerez - utz eta erukaíri
aonekaz; eta parkatu. Yaíaitu egizu oraindik,
zeure beso oíeik zabal-zabalik dozuzala, eruki
ta maitasunez beterik, ainbeste eskargabe ar-
tzeko, badezpadan zugana biurtzea otuko ba'
litzakioe be. Geiago eziñean, neure biotz au,
oso-osorik eskintzen dautzut. Eskatu egiozu
beronei atsegiñen zeinkitzun nekeen bat, oinpe-
tua izan dan zure izen onaren ordaintzat. ¡Ai
Jesus ze atsegiña zure iraiñen ordezt eta nire
anai erukaíri ta itzuen alde Altara oíeitan opari
izan al'banendi!

Orain eskiñi beite bakoitza Kristo oteundubaren
Biotz garbiari, Aratuzte-egun aonetako oben
alderako, gogo onez artuaz zeruko Jaun eta Eíegeak,
zuk igarotea naien leuken eta oíeitarako bialdu
leikitzen edozein estualdi, ezbear eta laíritasun.
Onen ondoren *erezeu* beitez sei «Aita gure», sei «Agur Maria»
ta beste sei «Gloria Patri», azkenengo au esaten
dan bakoitzean «Gora Jesus Sakramentaua»
esanaz, eta gero «ESKINTZARI TA
ESKARIA» oneixek esan bediz.

ESKINTZARI TA ESKARIAK

Jesukristo, neure Jauna! Nire anai erukaíri

ta itsuen ibilkera ta egikera naskagañiak dirazela-ta, zure oin auñera natorkizu, euren biotza bigundu, ta seme lez zugana biurtu daitezana. Ene Jauna! Zure Ama Donearen Sorkunde garbi-garbiañen, bere Amatasun aintzagañi, berak bere bizitza guztian bere soin, janzkera ta ibilkera guztietan agertu ta irakatsi euskun eratasun (modesti) añañiañen, parkatu egiezuez ainbeste itsu eñukañiri, euren arimak itxusituten dabezan lizunkeri ta loikeri lotsagañiak.

(Eleiztarak erantzun begie auxe:) Parkatu egiezu bai, Jauna, parkatu!

Zure yaiotza ezeukitasunez betiañen, eta ezer ezpaziña lez, bururik agertu barik, ixil-ixilik, apaltasunez beterik, igaro zenduzan txikitako urtiakañen, parkatu egiezuz ainbeste eñukañiri euren soñeko itxusi, año ta panpañoiekaz, egin eta eraginazoten dabezan obenak.

(Eleiztarak len lez:) Parkatu.....

Eguno txarkerira begiratu ezeben zure begi bigun eta eratasunez betiakañen, eta beti eredu (modelu) ta jañaigañi izan zirian itz neurtu ta zurtasunez beteakañen, parkatu egiezuz ainbeste eñukañiri, euren begirakune lizun eta autualdi nabarmenez kistar garbitasunaren kaltez, egin edo eraññazo daikezan pekatuak.

Parkatu.....

Zuk, pekatarien bila, ainbeste nekegaz egin zenduzan ibilialdiakaren, zure irakastaldietan igaro zenduzan naigabe, egañi ta izerdi tantakaren, parkatu egiezuz, ainbeste erukañiri, zuretzako emon bearean, deabruarentzako, euren osasun eta soñari emoten dutsezan neke gogoñak.

Parkatu.....

Eskergabetasun andiz erantzun eta lotsa barik erabilia izango zala jakinda gero, Eukaristia ipintean zuk agertu zeuskun maitasun neuri gabearen parkatu egiezuz.

Parkatu.....

Jetzemaniko baratzean igaro zenduan eriotz lañitasunaren, parkatu egiezuz ainbeste erukañiri, Judasek antxelez, orain eurak emoten deutzuezan iruzuezko laztan guztiak.

Parkatu...

Egun aonetan, zure nekaldia bañiztetan daben kristiñau askok baño eru gitxiago euken eskergaiztoko judeuek emon eutzuen matraletzeko izugañi, zuri ipiñi eutzuen arantzazko burrestun eta emon eutzuen kurutzeko eriotzaren.

Parkatu...

Zure nekaldi orduan, ikaslen buru Pedro iru bider zugaz lotsatu zanean, artu zenduan Biotz miñáren, parkatu egiezu iru bider baño askozaz sañiágo, euren kristiñautasunaz lotsatu dirazen erukañiai.

Parkatu...

Kurutzean esan zenduzan zazpi berbakañen, an eskini eutzuen beastun eta ozpin (biñagre), zure Amak ixuri ebazan negar malko, zure eriotz lañitasun, zure azken arnasa, ilobiratze ta berbizkundañen, parkatu egiezu eurentzako il ta berbiztu ezpaziña lez edo ori dakienenen antz asko barik bizi dirazen guzti-guztiai.

Parkatu...

OTOIA

Jesukristo neure Jauna! Ainbesteraño iraindua dan zure aintzaren ordañez, eta ardi galdua lez dabilzazen nire anai erukañiaren alde, eskari ta eskintzari aonek zuzentzen deutzudaz, zure Biotz erukior eta eztitzuaren abegiko izango dirala-ta, añen, ziur-ziur entzun dagizuzan. Erukitu zaite ene Jesus! Zure odolagaz erosi zenduzan zeure seme oñetzaz eta deitu egiezu, egunen baten, laztan gozo bat artzera. Alan izan dedila.

BIGAREN EGUNA

Kurutze Santuaren... Atzoko otoiya.

GOGARTEA

**Zenbat, egun aonetan, euren arimia galtzeko
zorian dabiltzazen**

I

Ene kristiñau maitea! Jesusi egun aonetan, etengabe egiten yakoan irañak, zure Biotza bigundu ta erauzten ezpadabe be, bigundu ta erauzi beie beintzat ikeragañizko zure anai taldea, euren bidebakeriz galtzen dala ikusita. Izuñiak ikututa, zure inguruan milaka gizon yausten ikustea baño, azkozaz be mingaño da, betirauneko izuñizko bidean gizon taldea ikustea. Ta zeure anai berberak diraz eurek. ¿Ez dozu esaten geidea maite dozula zeure burua berbera lez? ¿Zelan ez da ba garbi erausten zure biotza, ainbeste galdumendian ikusita? ¿Ez ete-zeunke zertxubait egingo euren betiko osasuna, ta eurek onbidera ekartea, zure eskuetan dagozala bazenkiz? Zeure eskuetan dago ba au, otoi sutsuz Kristo Altaratuari eskatzen ba-deu-

tsazu. Ta auxe da Jaunaren naia be, gutariko bakoitza bestearentzat izan dedila zeruko bide, jazogañi ta maila. Erabagi sendo bat artu egizu ba, Aratuztietako egun negargañi aonetan, aldozun gañoan beintzat, euren zeruko bide izateko. ¡Jesukristo neure Jauna! Entzun egizuz arima erukañi oñek ain bear-bear dabezan eskari onek, jaramon egitea asko zor ezpayake be. Argi izpitxu bat, euren galdumendia ikusi dagien, eta ikutu-ikututxu bat, zeure zerutar eskañez, andik ainbat lasteñen urten dagien. Jauna! Ez aztu, zure arerio deabrua ondo pozik dagoala, oñeik bere eskuan ikustean. Ez bedi alpeñekoa izan, neuretzako leintxe arentzako be, ixuri zenduan zeure odola! Ikusi deiela Jauna, ikusi, itsukirik erukañienok. Ikusi daiela ta gero goratu zagiezala betiraun guztian!

II

Gogoratu egizu, ene kristiñau maitea! Ze zoli, zur eta bizkor dabilzazen, egun aonetan, diabru, mundu ta aragia, arima atzian, zenbat lakario ta zare galgañi zabaldu dabezan, eta zoritxañez, zenbat itsumustuan, buruz auñera jausten dirazen galdumendi oñeitan. Nun nai erein dabe galbide azia. Yanskera ta ibilkeretan nasaikeria. Iolas eta txantxetan askatasun lo-

tsagaña. Izketa bañeikañiakaz naste, uzkurtza-
ren (erlejiño) kaltezko iri-bañe ta isekea. Ta
bildurgañaena da, oneik guztiok eta *izen ona-*
ren kaltegañi ageri-ageri ta ziur-ziurak dirazen
beste egikera asko be jolasgañi ta bañegañi di-
razela bakañik esanda, ainbeste ta ainbestek,
(aintzat) be ez artzea. Ta, ¡O añaña! ¡izenba-
tek ez ete dabe leporatuten egun aonetan, be-
tiko galduartian ezetara be, euren bizitza erukañi
ta erail (krimiñal) guztian baketan itxiko ez dau-
tzen izuri ta sataña (kangrenea)! ¡Zenbat erio-
tza txar eta pozkari asko bageen ero, zuztrai ta
ituri benetakoa ez ete-dira egun aonetako bi-
debakeri lotsagañiak! ¡Zenbat bearbada txikitan
kristiñau lez aziak izanagaitik, egun aonetan
ez ete dabe euren gaztetasuna, aldia baño len
galdu, gero il arte guztian zar-zundea darioela
egoteko! O neure Jaun eta Jaungoikua! Zugana
natorkizu, bearbada oraindik zintzoro-zintzoro
damutu ezkerro, parkamena *meresi* daiken ain-
beste arimaentzako eskar eta eruki bila! Orain-
dik, ezyakin eta gazte zoro dagoz. Odol eta
grinañak iraki daukez. Deabruak bere zarez in-
guratuten dauz eta munduak be bere agintaritza
guzurazkoagaz gaixoak atzipetu (engañau) egi-
ten dauz. Oregaitik ba, Jauna, erukizko begi-
rakada bat oreikana, zure argi izpitxu batek

egingo dauz bearbada, zure artaldiko ardirik zintzoen da. Entzun ba, euren alde, nire otoiak. Izan bediz ofetarakoxe, nire Jaun-artze, adimenketa, nire osasun, nire izen on eta nire bizitza. Artu egizuz euren zor-ordañez, aldenuriko arimaetarik batenbat, zure oñetara biurtu al baneike. Alan izan dedila.

(Beste guztia lenengo egunean lez).

IRUGARREN EGUNA

GOGARTEA

**Irañen ordañez eta pekatarien alde otoi egitez,
Jaungoikuak artzen daben poza**

I

Eskintzen dautsen baño askozaz geiyagok eskiñiko leukioe Jangoikuari irañen ordaña, balekie zenbat poztuten dan eta ze atsegiñez artzen daben Jaunak bere lagun zintzoen maitasun utzezko ordainketa au. Edozeiñek dakian gauzea da eskintzari ta bezuzak (eřegalú), zenbat eta urí ta banangoagoak izan, arabe pozgafiago izan oi-dirala; orduantxe argiroen ikusten dirazelako zintzotasuna, aiskidetasuna ta


bene-benetako maitasuna. Au aonelan izanik ba, gogoratu egizu ze atsegingaři izango yako-
zan Jesuseri zuk egun aonetan, berari lagun
egiten igaro dozuzan orduak, mundutařak zo-
rakeriz beterik, obenez beteriko, yauspideko,
edo beintzat bildurgařizko yolasketetan ebiltza-
zen artean. Bere Altarako bizilekutxu ořetatik,
iñoiz baño be maitekiroago, orixekanantz bere
lagun zintzoakanantz biurtzen dala dirudi Jesus,
eurek iraiñen ordainketa ořegaz agertu deutsen
esker onai, maitasunezko emaitz (doe) bařiakaz
erantzuten. ¡O! ¡zelan poztuko dabezan Jesusek
euren atsekabeetan, bera orain, bertan bera,
bakařik itxi ez daben arimak! ¡A! ¡ze lagun on
eta pozkilea izango daben euren estualdietan,
Jesus oso esker onekua dalako, ta ordia emo-
ten iñok uřik be emoten ez deutsalako! Ene
gogo maitea! Alegindu zaitez, Jesusentzat zin-
tzoa izaten, irainduten dabenak, eskergabeak,
bertan bera itxi ta iges egiten deutsenak asko
dirian ezkerro. Biztu ta geitu egizu maitasun
edeřezko su ta gařa, zure otoi beroakaz biurtu
dagiketzudan diabru ta aragiak ostuten dau-
tzuenen ordea. Azken egun aonetan, egizu ara-
be indar eta alegin geiyago ta eztozu damu
izango, azken orduan, iraindua ta oinpetua dan
Jesusen ondoan, olan beti zintzo irauna.

II

Gitxiago ezdot uste irebazi izango dozunik egun guztietan, baña batez bere azkenengo onetan itsutasunez zoraturik, bere ikuñin (bandera) atzian diabru *kapitanak* daroiezan pekatari erukañien alde, zeure otoiekaz jañi zarealako. Gure Jaun eta Jaungoikoak, geien goraldua izan bear daben bere aintzaren ondoren, bedegañez (berarizko eraz) maite dauz, zerurako egin eta euren alde bere odol guztia emon eban irazakiak (gizonak), eta naigabez beterik dakus (ikusten dauz) bere Biotz maitatiak, galbideak bera, betiraunean zoritxañeko izateko, berak zearo, zorots epaitu bear dauzanak. Ekin ba, deitu ta eskatu etengabe, euren eta inpernuaren erdian bitarteko norbait jañi, eurak ezin txañagoko bidetik atera ta oso damuz beterik Jaunaren eskuetara nok eroan izan deitean. Ta oregaitik nai dau euren alde, nok otoi asko egin, euren alde nor opaldu, ta euren ordia nok emon izan deitean; erukiak, betirauneko zuzentasunen kalte ta ezetariko eragozpenik barik, parkamen bidea zabal-zabal aurkitu dagian. Oregaitik ba, esan geinke, eztabela Jaunak ezertxube obetosarituko auxe gaizto erukañi onen osasun alde jartea baño. Au dagikenak Salbatzale dirudi, Jesus berbera lez, anai gaiztoen alde, otoi ta lane-

an iñardualako ta aonen irabazteak anai artean zabalдутen aleginduten dalako. ¡O nire ta nire anai guztien Salbatzaile gozua! Oñaxentz yokatu ta sari ori yadetsi nai neuke nik! Lortu dagidala ba, deabruak ostu dautzun arima galduen bat zuri biurtzea! Lortu dagidala nik, neure otoi erukañi ta ordainketa aonegaz arimen bateri zeure eskañagaz (graziaz) bañu-bañuan ikututea! ¡Andra Maria, zeruko Ama ta Eregiña, Aingeru ta Santuak eta eri ta gaizto erukañien yabola zareanok, asmo ta zeregin goragañi aonen alde jañi zaitez, ta eroan egizuez nire azken eskari aonek goiko Jaunaren bakaulki (trono) auñera, bearbada nire ezereztasunez lortuko ez litzakena, zuen bitartekotasunez lortu daiten! Alan izan dedila.

(Beste guztia lenengo egunian lez).



The first part of the paper is devoted to a general discussion of the
 various methods which have been employed for the determination of
 the rate of reaction. It is shown that the method of initial rates
 is the most reliable and accurate, and that the method of half-
 lives is only applicable to reactions of first order. The method of
 integrated rate laws is also discussed, and it is shown that it is
 applicable to reactions of any order. The method of differential
 rates is also discussed, and it is shown that it is applicable to
 reactions of any order. The method of the method of initial rates
 is the most reliable and accurate, and that the method of half-
 lives is only applicable to reactions of first order. The method of
 integrated rate laws is also discussed, and it is shown that it is
 applicable to reactions of any order. The method of differential
 rates is also discussed, and it is shown that it is applicable to
 reactions of any order.

